



Ostiraleko ikuzkizunean dantza nagusi bazen ere, irudiaz, poesiaz eta musikaz gozatu zuten ikusleek.

Poesia, irudia, musika eta dantza nahasketaz gozatu zuten ostiralean, Manuel Lekuona kultur etxeko aretora hurbildu ziren herritarrek. *Hnuy Illa* antzezlanean, puzzle batean bezalaxe, pieza guztiak daude batuta eta nahastuta, dantza eta irudiak, musika eta poesia, tradizioa eta garaikidetasuna... Eta, hau guztia, malenkoniaz bete, Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah yahoo* poema sortan bezala. •

Nahasketa nagusi

Kukai eta Tanttakak euskal dantzaren eta garaikidearen nahasketa erakutsi zuten *Hnuy Illa* ikuskizunean



Aburuza janari-dendak ateak itxi ditu

Milagros Etxanizek, 38 urte daramatza Aburuza janari-dendan lanean, senarrarekin hasi eta bakarrik, honen heriotzaren ostean. Ostiralean, bere azken eguna izan zen. Horregatik, Milagrosekin bildu ginen janari-dendaren istorioei buruz jakiteko. /4

Atleta gazteak lehia bizian

Atzo goizean, Michelingo kirol gunera hurbildu zirenek, hainbat kirol ikusteko aukera izan zuten. Futbola, Lasarte-Oria-Astigarran herriarteko pilota norgehiagoka eta atletismo pistetan, infantil mailako proba konbinatuetakoa Gipuzkoako txapelketa, X. Eneko Castro Omenezkoa. Eskola ezberdinetako 55 bat neska-mutil bildu ziren eta Lasarte-Oriak bazuen bere ordezkariak, Landaberriko Ane Galardi, Maria Eugi eta Patricia Prieto. Pisu jaurtiketa, luzera jauzia, 80 metro eta 80 metro hesiekin probetan parte hartu zuten eta lehia handia izan zen. •



KIROLA /2 Amaia Curiel junior mailako Espainiako sanbo txapelkun berria

GIZARTEA /5 Tolerantzia aztergai izango da Balioetan Hezi VII. jardunaldietan

KULTURA/6 Leioako lehiaketan saria jaso duen Oreindik taldeko Jokin Telleriarekin solasean



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Amaia Curiel judoka sanbo txapeliduna junior mailan

Asteburu mugitua izan dute LOKEko judoek. Batetik, junior mailako Espainiako Sanbo Txapelketan lehiatu dira Alacanten eta bestetik, Gazteizeko San Prudentzio txapelketan.

Bi lehiaketetan emaitza onak lortu dituzte eta domina ugari ekarri dituzte Lasarte-Oriara.

Sanbo lehiaketa

Alacanten, junior mailako Espainiako sanbo txapelketan, urrezko domina eta brontzezko bat eskuratu zituzten LOKEko neska-mutilek.

Urrezko domina izan zen horietako bat, Amaia Curielek eskuratutakoa, hain zuzen ere. Era honetara, sanbo denboraldia borobiltzen du. Izan ere, Espainiako kadete txapeliduna ere bada..

Esteban Martinezek ere domina eskuratu zuen, brontzezkoa eta Mario Garridok, berriz, bostgarren postua.

San Prudentzio txapelketa

Era berean, Gorka Aristegik zuzentzen dituen infantil eta



Esteban Martinez, Mario Garrido eta Amaia Curiel domina eta trofeoarekin.

kadeteek Gasteizko San Prudentzio judo txapelketan borrokatu ziren.

Entrenatzailearen hitzetan, "guztiak oso judo polita erakutsi zuten." Eta hor dago emaitza, urrezko domin bat, zilarrezko hiru eta brontzezko bat lortu zituzten Lasarte-Oriako judoek.

Abayuba Gonzalez izan zen bere mailan txapeliduna,

Asier Zubizarreta, Josu Olmos eta Fermin Balda bigarren geratu ziren eta Imanol Gonzalezek brontzea eskuratu zuten.

Espainiako judo txapelketa

Bestalde, Leire Zubizarretak 23 urte azpiko Espainiako txapelketan parte hartu behar zuen, baina gaixotu eta ezin izan zen lehiaketan parte hartu. •



Badator Ostadarreko Porra

Ostadar Kirol Fundazioak txirindularitzako porra antolatu du aurtien ere.

Porra honetako lehenengo proba, Giroa, maiatzaren 8an hasten da. Beraz, boletoa egiteko epea egun berdinean, larunbatean 21:00etan, amaitzen da.

Boletoa ohiko tabernetan aurkituko dituzte eta porraren funtzionamendua betikoa izango da, baita boletoa salneurria ere, 7 euro.

Porra egiteko txirindularien zerrenda Ostadarreko weban aurkitu ahal dezakete eta giroa behin hasita sailkapen eta boleto guztiak ere bertan egongo dira.

Sariak

Sariei dagokionez, etapako irabazleak 60 euro eskuratuko ditu, sailkapen orokorreko lehenarentzat 360 eurotako saria dago eta bigarrenarentzat 180 eurotako.

Ohikoa den bezala, 7 urdaiazpiko zozketatuko dira parte hartuko dutenen artean eta zortzigarren bat ere egongo da, Porrako azkenarentzat.

Era berean, puntu gehien batzen dituen tabernak bi pertsonentzako afari bat irabaziko du, Igara ibilbideko Aratz erretegian.

Eta urtero bezala, Giro, Tour eta Vueltako onenak 1600 euro irabaziko ditu. •

Kirol Udalekuak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak

Lasarte-Oriako Udalak, Kirol Zerbitzuaren bitartez, kirol Udalekuak antolatu ditu, 8 eta 12 urte bitarteko neska mutilentzat.

Lehenengo aldia eta ekimen hau egingo dena eta kiroldegian, zein Mitxelingo Kirol guneetan eramango da aurrera, astelehenetik ostiralera, goizero 9:00etatik 13:00etara.

Kirol ezberdinak, jolasak, irteerak... hamaika sorpresa biziko dituzte etxeko gazte-txoeak, esate baterako, Donostian surf ikastaroa egingo dute.

Bi txanda prestatu dira Kirol udalekuntan, bata

uztailaren 5etik 16ra eta beste 19tik 30era.

Izena ematea

Gaurtik aurrera, Lasarte-Oriako Udala kiroldegiko bulegoan egin daiteke izen ematea, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

Kiroldegiko bazkideek 122 euro ordaindu behar dute eta ez bazkideek, 142 euro. Honen barne daude, haurren eguneroko hamaiketako eta udalekuen orroigarria, kamiseta bat.

Taldeak gehienez 20 partaidekoak izango dira, horregatik inskripzio hurrenkera errespetatuko da. •

Beltzak-Ostadar Errugby eskolako kideak Zarautzeko Topaketetan

Apirilaren 24an, larunbatean, Beltzak-Ostadar Errugby eskolako gazteak Zarautzen ospatu zen Errugby topaketan egon ziren.

Zarautz Errugby Eskolak antolatutako ekimenean, ehun bat neska eta mutil egon ziren, giro ederrean, entrenatzen.

Eta, entrenamendua bukatzean, hirugarren denbora egon zen guzientzat.

Hurrengo topaketa, maiatzaren 15ean izango da Kontxako hondartzan eta Gipuzkoako Errugby eskola guztiak egongo dira. •



Beltzak-Ostadar Errugby Eskolako jokalariek batzuk Zarautzeko Topaketetan.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Ezker abertzalearen zalantzak, Udalaren parte-hartze sistemaz

Ezker Abertzaleko zinegotziak Lasarte-Oriako Udalak eta bere alkateak martxan jarri duen parte-hartze prozesuari buruz mintzatu dira. "Herriaren kudeaketa guztien artean egitea da helburua. Herritarrek parte-hartzeko bideak bilatu behar dira," alkatearen hitz hauek ongi etorriak izan direla azaldu dute.

Izan ere, azken hogeitaka urteetan, Lasarte-Oria kudeatu duen Urchueguia andreaki sekula horrelakorik ez entzun izana azpimarratu dute ezker abertzaleko ordezkariak. "Berak inpotentzia, harrokeria eta mespretxuz kudeatu du udala hau," adierazi dute.

Partehartzea eta asmo onak

Herritarrek, agintarien aldetik, zintzotasuna, gardentasuna, zabaltasuna ikusten badute, egitasmo desberdinetan buru belarri sartuko direla adierazi dute.

Iradakizunak jasotzea ondo dagoela, baina nahikoa ez dela ere azpimarratu dute, "benetako partehartze guneak zabaldu behar dira. Baina zer gertatzen da, ez direla fido."

Izan ere, "erabakiak era bertikalean eta alde zuzenetik hartuak egoten dira. Egitasmo hauek paripe bat izaten dira kasu gehienetan. Partehartzeak muga batzuk izaten ditu eta askotan boterearen interesen kontrako iritzi edo korronteak sortzen direnez, erabaki guneak hortxe bukatzen dira," salatzen dute.



Ezker Abertzaleak Udalaren parte-hartze sistemari buruz hitz egin du.

Eta alkatearen asmo onak agerian jarri dituzte, "alkate-tza hartu berria duzu eta gogoz eta indartsu somatzen zaitugu, seguraski ideia mordoska batzuk izango dituzu buruan."

Baina, "baietz hemendik urtebete barru zure ideiak azukre koxkor bat bezela desegin. Esan dezagun argi eta garbi, zuk ordezkaten duzun alderdiaren kudeaketa eredu ez dela hori," ohartarazi diote Jesus Zaballos alkateari.

Eta zera gogoratzen dute, "egitasmo bat bada martxan, plazaolako parkearen inguruan. Partehartze gune hortan aipatu da eta herrian nahiko zabaldua dago, parte hartzearen aldeko kultura falta dela, bai agintarien aldetik eta baita agian herritarren aldetik ere."

Partehartzea sustatzeko gaiak ere eskaintzen dizkiote alkateari, "etxebizitza arazoa, hirigintza planifikazioa, kultura politika, gateria, horra gai batzuk, non aukera fidagarri eta zintzoak eman ezker jendeak parte hartuko duen" eta benetako partehartze guneak zabaltzeko eskaera egiten dute. Hori baita, ezker abertzalearen ustez bere egitekoa.

"Sartu lur azpian azken urte hauetako ohitura, dinamika eta interes ilun eta mespretxagarririk. Seguru gaude hori horrela izanda, herritarren aldetik parte hartze zabala jasoko duzula, herriaren eta herritarren onurarako" adierazi dute.

Horrela bada, ezker abertzaleko zinegotziak bidelagun izango dituela jakinarazi dute. •

EUSKARA

Munnteri-AEK-ko ikasleak Ele-alea saioan

Munnteri-AEK euskaltegiko talde batek parte hartuko du gaueko 21:00etatik 21:30etara bitarte Euskadi Irratiko *Ele-alea* lehiaketan. Hizkuntza ikasteko ariketa didaktikoak erantzun beharko dituzte Munnteri-AEKko ikasleek. Halaber, haien bizipenez ere jakiteko aukera izango dugu.

Otsailean sortutako saio honek euskara ikastea gustagarri egitea du helburu. Euskara hitz egitera animatu eta horretarako gonbidatu ezberdinak izaten dituzte astero. Honetaz gain, saio honetan hitz berriak, kantuen esanahiak, hitz korapiloak, esatera zaharrak... ikasteko aukera proposatzen digute *Ele-aleatik*.

Gogoratu, gaueko 21:00etatik 21:30etara Munnteri AEKko ikasleak Euskadi Irratian. •



Ele-alea saioan parte hartuko duten Munnteri-AEKko ikasleak

KULTURA

Bertso-eskolen topaketa

Sasoeta eta Landaberri ikastetxeetako besto eskolak Arrieskaletan elkartean bildu ziren aurreko asteazken arratsaldean, elkar ezagutu eta elkarrekin une atsegin bat igarotzeko helburuarekin. Unai Muñoa da Lasarte-Oriako bi ikastetxeetan "Ahozkotasuna" eta Bertsolaritza proiektuaren arduradun eta bi bertso eskoletako irakasle eta esan bezala asteazkenean bi taldeak elkartu zituen.

10-12 urte bitartekoak dira eta Lasarte-Oria ere argi gertzen da neskak direla adin hauetan bertsotan aritzen direnak. Bi mutiko bakarrik dira Bertso Eskolan. Arrieskaletan egin zuten afari meriendan mutiko bakarra izan zen, bietatik batek ezin izan zuen egon eta. Beste guztiak neskatalak ziren.

Tripa beteta, talde bakoitzak besteari kantatu zion. Hamarna lagun ari dira bertso eskola bakoitzean eta Landaberrikoek euren gustoko abesti bi aukeratu eta letra aldatu zioten. Sasoetakoek, aldiz, dantza eta bertsoa uztartu zituzten, koreografiaren taltean beste eskolakoei bertso batzuek kantatuz. •



Makina berriaren aurkezpena Usurbilgo Lanbide Eskolan.

Usurbilgo Lanbide Eskolak buru bikotza eta Y ardatza dituen torneatze makinaren aurkezpena egin zuen ostiralean. Horretarako, hitzaldi sorta bat antolatu zuen bere egoitzan. Jardunaldi honetara, ingeneritza ikastetxe eta enpresak hurbildu ziren. Hauei mekanizatu zentroek eskaini ditzaketen torneatze aukera batzuk aurkeztu zizkieten Usurbilgo Lanbide Eskolak eta, gero, makinaren erabilerean erakustaldia egin zuten. Honetaz gain, David Urzainqui Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordearen bisita izan zuten. Izan ere, besteak beste, Hezkuntzaren laguntzaz lortu dute makina berria. •

Europar Batasuna ezagutzen

Lasarte-Usurbil Institutuko Batxilergoko lehen mailako gazteek hitzaldi berezia izan zuten ostiralean. Honetan, Europar Batasuneko historia eta hainbat bitxikeri ezagutu ahal izan zituzten bertan lanean ari den Dorleta Martin herritarren eskutik.

Hitzaldia Europar Batasunak antolatutako informazio programa baten barne sartzen da. Bere berezitasuna Europear Batasuneko historia eta langileek bere jaioterrian eta haiek ikasitako eskola, zein institutuaren hitzaldian ematen dutela da. •



Milagros Etxaniz Begiristain/ Aburuza janari-dendako dendaria

‘Esfortzu eta sakrifizio urteak izan arren, esker onekoak izan dira’

38 urte pasa dira jada Milagros Etxaniz Begiristain bere senarraren alboan Aburuza dendan lanean hasi zenetik. Bere senarra dendari eta bera laguntzaile. Baina orain dela 27 urte, bere senarra hil zenean berak hartu zuen negozioaren ardura. Lanaldi aberatsa bizi izan du herritarren hozkailuak eta armaiurak betetzen. Ostiralean erretiroa hartu eta Aburuza janari-denda itxi du.

ITXASO MORENO

Jende ugari hornitu du Aburuza denda irekita egon den denboraldi luzean. Herritar ugari izan zarete Kale Nagusian kokatuta zegoen janari-denda honetan. Ostiralean agur esan zigun lasarteoriarrei. Milagros Etxaniz dendari eta jabeak erretiroa hartzeko garaia du. Triste urte hauek bizipenak uzteagatik, baina alai, orain bizitzaz disfrutatzen eta 38 urte hauek ezin izan dituenak egiteko gogoekin aurkituko dugu. “Lan sakrifikatua, baina asegarria”, horrela definitzen du Milagros bere lan bizitza.

38 urte lanean Aburuzan, ze balorazio egiten duzu?

Oso ibilbide polita izan da hemen bizitakoa. Esfortzu eta sakrifizio urteak izan dira, baina burutu dudana jarduera oso esker onekoa izan da. Bezeroak errege izan ditut, bezeroak gabe ez baitago negoziarik. Oso jatorrak izan dira nirekin, eurei esker duintasunez bukatu ahal izan ditut. Oso eskerturik sentitzen naiz lasarteoriarrekin biziarekin izan didaten garaiarekin, oso polita izan da. Badago jendea lanera kostata joaten dena, ni ez, beti ilusioz etorri naiz.

Noiz ireki zen Aburuza?

1972an ireki zen. Hasieran nire senarra zen dendaria, eta ni laguntzaile. Baina orain dela 27 urte nire senarra hil zenean, ni jarri nintzen buru. Hasieran uste nuen ez nuela aurrera ateratzen lortuko, baina lortu nuen, eta hori niretzako satisfazio handia izan zen. Eta guztia, bezeroei esker.

Gaur egun ezagutzen dugun denda ez da aitzinakoa...

Ez. Dendaren 25. urteurrena ospatzeko denda guztia berri-berri genduen. Inaugurazioa oso ondo eta alaitu gogoratzen dut, egun polita izan zen. Denda jada zaharkitua zegoen, zerbait egin behar genuen, eta horrek aurrera jarraitzeko indar handia eman zidan. Nire alaba zaharenak diseinatu zuen denda berria, bera arduratu zen guztiaz. Gainera, nire ondoan okindegi jarri zuen. Garai ederrak izan ziren haiek.

38 urte hauek kontsumo aldaketarik eman al da?

Oinarriko produktuak berdin-berdinak dira; kontserbak, gailetak... gainera kopuru berdinean saltzen jarraitzen dut. Aurrez prestatutako jakiak adibidez orain presentzia gehi-



Oroitzapen onez beteta hartu zuen ostiralean erretiroa Milagros, Aburuza dendako nagusiak

go dute, baina nik ez ditut ekarri, horretarako kamerak behar direlako. Egun aurrera jarraitu nahi banu hestebete xerratuak, aurrez prestatutakoak eta eta izoztutako produktuak saldu beharko nituzke. Hala ere, bezeroen eskakizunen beharretara egokitu naiz beti. Zerbait berezia ekartzen saiatu naizenean, prezioan garestiago, ez du arrakastarik izan. Lasarte-Oria langile herria da, eta prezioekin kon-tuz ibili behar da.

Nolako izan da bezeroekiko harremana?

Oso ona. Bezeroak askotan esan didate denda honetan sartzea etxera sartzea bezalako zela. Denda txiki hauek bezeroekiko tratua etxekoekin bezalako da, oso hurbila. Erosketak egiteaz gain, gure gauzetaz ere hitz egiten genduen.

Jende ugari ikusi dut jaitzen, baina hiltzen ere. 38 urte, etapa luzea da. Jende askori eman diot bazkatzen. Hemen bezeroak lagun bihurtu dira, eta nire erretiroa penaz hartu dute askok. Immigrazioa eman zenean, jende ugari etorri zen herrira, eta hauek ere nire dendan erosten zuten. Eurek ere 38 urtez denda izatearen eragile izan dira. Negozioak funtzio-na zezan lagundu zuten.

Nolako bezeroak dituzu orain?

Helduak gehienbat. Nire has-tapenetan adin guztietakoak etortzen ziren. Baina egun gaizteak hipermerkatu handie-tara joaten dira, erosotasuna-gatik. Egun emakumeak lan egiten du, ez du lehen bezain besteko denbora librerik. Lehen erosketak egitea bizitza soziala egitea zen.

Nola ikusten duzu denda txiki-ekin etorkizuna?

Gaizki. Espezializatu egin behar zara, bestela, akabo. 1974an 32 denda ginen herrian, egun hiru gelditzen gara, bueno bi, nirea itxita dago jada. Hipermerkatuek mina egin digute, baina erdi-gunean aparkalekuri ez ego-teak. Azkenean jendea hipermerkatuetara doa han arazorik gabe kotxea utz dezakeelako. Gainera egun, aste osorako erosketak egiten da, ez lehen bezala, eguneko-ak egunean bertan.

Erretiroarekin, nola ikusten duzu etorkizuna?

Nire bizitzaren momenturik hobereanean nago orain. Lana uzteko momentu ederra, osasuna daukat eta bizitzaz disfrutat nahi dut. Urte hoberean lanean pasa badi-tut ere, oraindik urteak gera-tzen zaizkit. Orain arte egin ez ditudanaz disfrutatzen dut helburua. Nire semeekin oso gutxi egon naizenez, orain nire bilobaz disfrutat nahi dut, lehentasuna bera-entzako izango da. Irakurtzea dut gogoko, hitzaldietara joa-tea, bidaiatzea... beraz, hauek egiteko momentua iritsi zait. •



Milagros Maribi bezeroari azkenengo aldiz zerbitzatzen. Bezero bezala hasitakoa, orain lagun du.

Gizarte balioak eta tolerantzia

VII. Balioetan Hezi hitzaldi sortan

Gizakia balioetan heztea, bizitzaren nondik norakoak argitzen saiatzea da. Balio ezberdinen arabera antolatzen gara izakiak. Baina non dago tolerantziarentzat lekua gure egunerokotasunean? Hauxe da, hurrengo astean, maiatzaren 10etik 13ra arte, Danok Kide Guraso elkarteak antolatzen dituen Balioetan Hezi hitzaldi sortan aztertuko den gaia.

Urtero legez, Danok Kide elkarteak Balioetan Hezi jardunaldi arrakastatsuak antolatuko ditu maiatzaren 10etik 13ra Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan, arratsaldeko 19:30ean.

Zazpigarren edizio honetan, hausnarketa gaia tolerantzia izango dira. Eta honek gizarteko beste gai batzuetan, hala nola, inmigrazioa edo ideologia politikoetan dituen



Balioetan Hezi VII. jardunaldietan, tolerantziak gizarteko beste gai eta balio batzuetan duen eragina aztertuko da.

eragina aztertuko da lau hitzaldi ezberdinetan.

Hitzaldiak

Astelehenean, maiatzak

10ean, *Tolerantziaren ikuspegi orokorra* aurkeztuko du Xabier Ibarzabal Aramberri Medikuntzan doktore eta Bioetikari adituak; asteartean,

berriaz, *Tolerantzia eta ideologia politikoei buruz* arituko da Martin Auzmendi Ayerbe Zuzenbiden lizentziatuak; asteazkenean, *Tolerantzia eta*

inmigrazioa izango ditu hizpide Agustin Unzurrunzaga Gipuzkoako SOS Arrazakeriako ordezkariek eta, azkenik, ostegunean, *Tolerantzia eta erlijioari buruz* mintzatuko da Tomas Muro Teologoa.

Zer da tolerantzia?

Tolerantzia ezberdinari errespetua izatea da. Besteak diren bezala onartzea edo aniztasunaren errespetua izatea da. Besteen eztabaidetan ikuspuntu ezberdinak entzun eta onartzea.

Tolerantzia pasiboa "bizi eta bizitzen uztea da", baina aktiboki egiten duenak elkar-tasuna adierazten du.

Aitzinean onginahia zen eta balio honek beste pertsonekin hitzez, sentimentuz eta ekintzez ongi eraman eta adeitsu izatea esan nahi du; ez, ordea, beste pertsonak erabiltzea eta haiekin harroa eta zakarra izatea. •

ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goï Eskola Politeknikoa

ARRASATE

MAIATZAK 6 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00 2. zikloa

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA

MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian

Jokin Telleria Bateria jolea eta kultur programatzailea

“Oreindik ez dugu askotan jo”

■ Oreindik musika taldearen helburua kontzertuak eskaintzea da ■ "Zerri Hegalaria" kantua izan da Leioako maketa sariketan euskarazko abesti onena ■ Ostiral gauean Jalgin joko dute

2009. urtearen hasieran sortu zuten Oreindik musika taldea, bizipen, ibilbide, eragin, ikuspegi eta jatorri desberdineko bost lagunek. Baina denek dute musika sortu eta kontzertuak eskaintzeko gogoia, bat datoz horretan: ondo pasa eta ondo pasarazi nahi dute. Parapetoan, Udalak utzitako lolalean, hasi ziren; orain Makulu Ken taldekoekin batera ensaiatzen dute Sasotetan eta pixkanaka euren bidea egiten ari dira. Urte hasieran demo bat grabatu eta autoeditatu zuten.

JON ALTUNA

Jokin Telleria eta lagunak Oreindik musika taldeak Euskarazko abesti onenaren saria jaso du Leioako X. Maketa Lehiaketan, "Zerri hegalaria" abestiarekin. Iaz, urte hasieran, hasi ziren Lasarte-Oria, Andoain, Zarautz eta Donostia, lau herritako bost lagunak elkarrekin jotzen, eta ordutik, urte eta erdian, hamar abesti sortu dituzte. Josu Etxeberria (Andoain) ahotsa, Haritz Manterola (Zarautz) gitarra, Alvaro Remacha (Andoain) gitarra, Ibon Jiri García (Donostia) baxua eta Jokin Telleria (Lasarte-Oria) bateria dira Oreindik.

Bost lagun zarete, lau herritakoak, nolatan elkartu zineten?

Josu abeslaria eta biok lagun koadrila berekoak gara, Josuk Haritz, nik Jiri, lau ezagutzen ginen guren artean, eta gero Alvaro gitarrista etorri zen Andoainen jarritako iragarki baten bidez. 2009. urtearen hasieran hasi ginen batera jotzen, Parapetoan, Udalak ensaiatzeko utzitako lekuan.

Lehen aldiz jendaurrean jo zenuen eta zineten Oreindik. Hapening Jalgin egin zenuen Itoiz taldeari eskainitako omenaldi kontzertua...

Bai, hasi eta bizpahiru hilabete-tara, geure abestiak sortzen ari ginela San Pedroten Itoizen bertsioko egiteko proposatu nien: taldea gustatzen zaigu, probatu eta festetan kontzertua jo genuen, ekainaren 30ean, baina ez du jarraipenik izan. Nolabait esateko parentesia bat egin genuen, eta gero gure bidea segitu dugu.

Eta, zer moduz doa?

Jada abesti sorta bat badaukagu, pixkanaka 9-10 sortu ditugu, maketa bat grabatu dugu eta zenbait lehiaketetan aurkeztu dugu. Kontua da Alvaro gitarrak-joleak badakiela grabatzen eta lokalean bertan egin dugu demoa. Berak zeukan dena,

mikroak, programa,... ordena-gailua erosi eta auto-editatu egin dugu. Sei abesti dira.

Leioara bidali eta saria irabazi duzue. Zer eragin izango du taldearen ibilbidean? Nola hartu duzue?

Gure helburua kontzertuak dira, asko gustatzen zaizkigu eta. Ez daukagu beste helbururik. Bagenekien saria jasotzeak izen bat emango zigula, gero, errazago izango genuke Udalekin lan egiteko eta kontzertuak emateko. Beraz, batez ere izena eman digu, medioetan atera gara,... Gure my space-an dago saritutako abestia: zerri hegalaria. Ondo etorri zaigu ezagutarazteko baina azken finean, nahi duguna, jotzea da.

Leioan hori jaso duzue behintzat, jotzeko aukera, ezta?

Bai eta 600 euro ere bai. Ekainaren 19an joko dugu Midnight Road (Bilbo) Belöp (Redondela) eta Niño Pájaro (Getafe) Pop-Rock ataleko finalisten. Metal ataleko finala 18an izango da.

Demoa atera duzue, definituta al daukazu zuen musika?

Ez. Gure oinarria rocka da, baina estilo askotara irekiak gaude. Funk estilorantz ere jotzen dugu. Oso irekiak gara, agian gehiegi eta ez dugu bide oso markatua. Gero konposatzerakoan lanak daukagu.

Eta noizko diskoa?

Ez daukagu hori buruan. Kontzertuak eman nahi ditugu, abesti gehiago atera eta errepertorio polit bat osatu. Demo bat sei abestirekin guretzat nahikoa da. Diskoetxeen baldintzak txarrak dira. Ez dute ezer eskaintzen, soilik agian banaketa, baina portzentaje handi bat beraientzat da...

Zuk batera joko duzu, noski?

Bai, batera. Oso txikitzen tronpetak jotzen hasi nintzen eta bi urtez aritu. Gero konturatu nintzen batera jo nahi nuela. 16 bat urterekin hasi nintzen



Andoain, Zarautz, Donostia eta Lasarte-Oriako bost lagunak Abend-en abenduaren 20an eskaintako kontzertuan.



Donostiako kontserbatorioan, duela 12 urte.

Orain beste talde batekin ere jotzen hasi naiz Zarautzen. Hilabete daramat Louisemichel taldean. Jalgin musika jarri zuten Marek eslovakiarrak, batera behar zuten, probatu eta pila bat gustatu zitzaidan.

Aurretik zein taldetan jo zenuen?

Zama izena zuten Metal talde batean. Kañeroa zen. Bost bat urte iraun zuten, 1999-2004 bitartean gutxi gorabehera. Lasartekoak Ilitz Olano eta Iñigo Unanue ziren. Donostiar bat eta zaldibiarra. Gero Euskararen Maratoian eta Jam saioetan jo dut. Bestela denbora asko egon naiz jo gabe.

Gogoz heldu al diozu berriro?

Azken urteotan kontzertu pila bat programatzen aritu naiz eta ni jo gabe! Eta asko bilatu gabe etorri da. Beno, Josu lagunarekin Jam saioan jo eta sarri esan ohi genuen: zerbait egin behar dugu. Kosta zaigu talde batekin feeling-a lortzen baina azkenean lortu dugu. Oso giro ona daukagu, gainera, afaltzera joatea ere denoi gustatzen zaigu.

Dena den, oreindik ez duzue kontzertu askotan jo?

Ez, oreindik ez. Abend-en lehenengo, gero Sustraien jo dugu orain dela pare bat aste, Galarretakoa Gala aretoan ere bai eta aurreko ostiralean Orioko Txalupan, azken bietan Makulu Ken taldearekin. Lokal berean entseaten dugu eta oso ondo konpontzen gara talde honekin. Larunbatean sagardotegian bazkaldu genuen elkarrekin.

Kontzertu gogoangarririk?

Niretzat onena Sustrai taberna-koa izan zen. Ia ez ginen sartzen baina, Abend-ekoa ere bai, lehenengo kontzertua oso berezia izan zen.

Oreindik izena nondik atera duzue?

Euskarazko izena jarri nahi genion, baina ez oso arrunta, ukitu desberdin bat izan behar zuten, gure musika ere horrelakoa da eta. Rocka da, baina

ukitu ezberdin bat ematen saiatzen gara. Oraindik pixka bat aldatuz, Oraindik? Ez Oreindik.

Helburu jakinik ez duzuela aipatu didazu,...

Ez, jotzen jarraitu, eboluzionatu, ez dakigu norantz, baina eboluzionatu eta gure artean ikasten segi.

Udarako itxaropenik?

Bai baditugu zita batzuk, Leioako berezia izango da ekainak 19an; Groseko festetan joko dugu uztailak 15ean; eta hemen, maiatzak 7an Jalgin, 40 de fiebreko Juan Mariiren omenez eta agian sanpedrotan.

Beste sariketaren batean aurkeztu al zarete?

Bai lau lehiaketetan aurkeztu gara eta azkenengoa lortu dugu saria. Leioara, Gaztea sariketara, EH Zuzenean sarira eta Donostiako Pop-rock lehiaketara bidali genuen maketa.

Dena dira entzutetsuak,...

Bai, pisu gutxiena agian Leioakoak du.

140 talde aurkeztu baldin badira, sariketa ona da...

Bai oso ondo dago. Ez genuen jada saririk espero. Maketa autoeditatua da eta ez dauka sekulako kalitatetik. Baina, azkenekoan etorri da saria.

Zer moduz Xpression-en?

Krisia nabaritzen da, baina esparru askotan lan eginez eusten diogu. Hazten ari gara pixkanaka. Sei urte daramagu, denbora asko da, baina oraindik ez dago erabat finkatua. •

“Gure oinarria rocka da, baina estilo askotara irekiak gaude, agian gehiegi, eta ez dugu bide oso markatua.”

Egunero

Erakusketa

JUAN MARI CEREZOREN omenez erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgi kafe-antzikaria, egun osoan.

Erakusketa

LASARTE-ORIAKO BIZILAGUNEN ELKARTEKO margo eskolako lanak ikusgai hilaen 7tik 16ra bitartean. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

Asteazkena 5

Hitzaldia

VIVIR LA UTOPIA bideo emanaldia eta ondoren hizketa-etzabaida XABIER ERAUKIEN eskutik egongo da CNTko ehungarren urteurrena ospatzeko. Manuel Lekuona kulturetxean 18:30ean.

Ostirala, 7

Kontzertua

IBON CASASEK rock emanaldia eskainiko du Gazte Kontzertuen egitasmoaren barruan. Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan

Kontzertua

OREINDIK talde lasarteoriatarren emanaldia, Rock, Funk. Jalgi kafe-antzikaria, gaueko 23:00etan.

Larunbata, 8

Ektaldia

JUAN MARI CEREZOREN OMENEZKO II. EKITALDIA. Goizetik hasita hainbat ekitaldi egingo dira.: bazkaria, triki-poteoa, sagardo dastatzea, magia saioa, kontzertuak... Andatza plaza, egun osoan.

Oharrak

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkartek ekainaren lehenengo astean, ekainaren 2tik 6ra antolatuko ditu Zabaletako festak. Hauek antolatutako asteartero, 19:30ean, Antonio Blas plaza bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarteak.

Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean.



Gatazkei aurre egiteko moduei buruzko hitzaldia

GATAZKA BAT SORTU DA ETA HELDUOK ZER EGITEN DUGU? hitzaldia eskainiko du Josune Martiarenak Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta.

MAIATZAREN 6AN, OSTEAGUNA
KULTURETXEAN 18:00ETAN
GAZTELANIAZ

Kontzertua

SUTARGI ABESBATZAREN emanaldia. Biyak Bat Jubilatuen Elkarteak, 19:00etan.

Bertso-saioa

LEKUONA HOTELA bertso-saio berezia. Sarrera 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan, EUSKARAZ

Astelehena, 10

Hitzaldia

TOLERANTZIAREN IKUSPUNTU OROKORRARI buruz arituko da Xabier Ibarzabal, medikuntzan doktorea eta bioetikaren aditua, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainen bulagoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilika-

ria, Festina markako esku-muturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrezko belarririkoa, Alcatel markako mugikorra, belarririkoa beltza eta doratua, bi betaurreko graduatu eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norako emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Asteartea, 11

Kontzertua

KONTZERTU PEDAGOGIKOA Donato Goyeneche eta Xabier Arakamaren eskutik. Kulturetxean, 18:00etan.

Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA IDEOLOGI POLITIKOEI buruz arituko da Martin Auzmendi, zuzenbidean lizentziatua, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

Asteazkena, 12

Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA INMIGRAZIOARI buruz arituko da Agustín Unzurrunzaga, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren ordezkaria, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Osteguna, 13

Bertso-saioa

AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA jaialdia. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:15ean.

Osteguna, 13

Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA ERLIJOARI buruz arituko da Tomas Muro, teologoa eta irakaslea, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

Zinea

SOUL KITCHEN filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean.

Eskutitzak

Erraustegiaren ingurugiro baimenarekin ez gaude ados

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorak Eusko Jaurlaritzak Zubietako erraustegiari eman dion ingurugiro baimenarekin erabateko desadostasuna agertu nahi du.

Berriro ere Eusko Jaurlaritzak argi eta garbi utzi du zenbat inporta zaion lau haizetara zabaltzen duen gizartearen parte hartzea. Abenduan Koordinadorak 1.400 helegite aurkeztu zituzkien erraustegiaren ingurugiro azterketari, baimenik ez emateko eskatu, pertsonen, nekazaritza ustiapenei, paisaiari, hondakinen kudeaketa arrazionalari, uren sistemari, landaretzari, interes geologikoa duen "Estenaga mendiaren terrazak" eremuari zuzeneko eragin kaltegarria egingo zuelako, eta era berean usainak, nitrogeno oxidok, bentzenoa, dioxinak, furanok, sulfuro dioxidoa, karbono monoxidoa, artseniko, kadmio, nikel, merkurio eta beste substantzia oso kutsagarriak jariatuko zituelako, kontuan izanik 5 km-ko erradioan (eragin gehieneko eremuan) eta 15 km-ko erradioan (eragineko eremuan) bizi den jendetza eta erabaki honek helegiteetan aipatzen den legeak urratzen dituela.

Orain arte ez dugu erantzunik jaso eta berriro 1400 pertsonen ahotsai eta arrazoiei entzungor egin die Eusko Jaurlaritzak, azalpenik eman gabe. Horien erabakiak ez du zerikusirik ingurugiroarekin, interes ekonomikoekin baizik.

Zenbat atez ateko bilketa sistema jarri daitezke Gipuzkoan munstro hau kostako den 400 milioi euroekin? Usurbilek jadanik frogatu du sistemaren eraginkortasuna eta horretarako datuak begirata ez besterik ez dago. Usurbilek bakarrik hondakin organikoak biltzen duten Gipuzkoako beste herri guztiek baino gehiago biltzen du. Martxoan Usurbilen (5.919 biztanle) 77.550 kg bildu ziren eta Gipuzkoako beste herrietan (87.275 biztanle) 68.951 kg.

Koordinadorak atez ateko sistema hau defendatzen jarraituko du eta gogor jardungo dugu erraustegia ez dadin eraiki, ez dadin martxan jarri, ez dezan erregairik izan bere funtzionamendurako.

Atez ate, errausketarik ez!

Gipuzkoako errausketaren aurkako plataformen koordinadora



Herri Urratsera autobusa

Ikastolen elkarteak antolatzen duen Herri Urratsera joateko autobusa antolatuta du Ttaku Kultur Elkarteak urtero bezala. Autobusa goizeko 09:00etan abiatuko da lehengo taxi geltokitik maiatzaren 9an. Txartelak 12 euro balio du eta Ttakunen eta Jalgin daude salgai.

Joxan Salsamendi Mendigoizalea

Arratetik Lasarte-Oriara oinez

■ Koadrila batek Eibartik etxerainoko bidea egingo du maiatzaren 15ean ■ Gutxi gorabehera 13 orduko martxa izango da ■ Aurreko urteetan Arantzazun, Aralarren eta Irantzun izan dira

Duela lau urte egin zuen herriko lagun talde batek lehenengo ibilaldia Lasarte-Oriatik Arantzazura eta orduz geroztik urtero antolatu dute. Bigarrena, herritik Aralarra egin zuten, iaz Larraitzik Irantzura joan ziren eta aurten Arratetik Lasarte-Oriara etorriko dira. Berezitasuna, horixe da, aurten, etxean bukatuko dutela. Joxan Salsamendik prestatzen du ibilbidea emaztearekin batera eta berak eman digu irteera, ondorengo afari eta beste hainbat bitxikeriaren berri.

JON ALTUNA

Maiatzaren 15ean, goizeko 5etan aterako da lasarteoriatar lagun koadrila bat autobusez Eibar aldera. Goizeko 6etan Arrate auzoko santutegi ingurutik abiatuko dira eta 13-14 orduko ibilbidea osatu ondoren iritsiko dira Lasarte-Oriara, Intza elkartearen afaltzeko asmoarekin. Herrian bertan bukatzea izango da aurtengo berritasun eta pizgarria. Aurreko urteetan ibilbideen abiapuntu izan da Lasarte-Oria, 2007an Arantzazura joateko, 2008an Aralarko San Miguelera eta iaz aldiz, Amezketatik atera ziren Lizarraldeko Irantzura joateko.

Aurten Joxan Salsamendi, Loli Serrano eta lagunak prestatu duten ibilbidearen beste alde interesgarria Atxolondoko burdin-olatik egingo den itzulerara da. Paseatzera joateko tokia izan da hau askorentzat, gainera aspaldian bidea zikin xamarra izan da, sasiak janda, itxia zegoen, baina garbitu

dute pixka bat eta bertatik iritsiko dira Lasarte-Oriara. Martxa egingo dutenen artean, asko, 30 urte ondoren berriro pasatuko dira bertatik eta antolatzaileen ustez "amaiera bitxia eta ederra izango da".

13-14 orduko ibilaldi luze xamarra egin ohi dute, ondo prestatuta daudentzat egokia. Dena den, azken urteotan ia hogeitaz lagunak osatu dute ibilbidea. Joxan Salsamendik eman digu aurtengoaren berri: "Arratetik Elgoibarrera jaitsiko gara, herria zeharkatu alde batetik bestera eta Madarixatik, Altzola zahar aldera igo. Zerbait jan eta Goltzibar baserritik Ekainera, Zestoara, jaitsiko gara, Aizarnara igo, han bazkaldu, hortik Santa Engrazira, Ernio aldera, eta Andazarratetik jaitsi, Atxulondoko burnitegi zaharrean barrena, Abalotzeko kanaletik, Lasarte-Oriara heltzeko.

Bidea ez dute Loli emaztea eta biek berez ezagutzen, joan eta bilatu egiten dute. "Mapa hartu eta pixkanaka hasten gara: hemendik hona joan



Joxan Salsamendi, irudian lehenengoa, eta Loli Serranok prestatzen dute urtero ibilbidea.

behar dugu... eta bion artean erabaki: bide hau zikina dago, edo hemen asfaltu asko dago, ba beste alde batetik probatzen dugu, pixkanaka ibilbidea finikatu arte. Azkenean denbora ematen dugu, lau bat hilabete".

Santutegiz Santutegi

Azken urteotan Arantzazu, Aralar eta Irantzuko santutegietan izan dira, baina Salsamendik esan digunez kasualitatea izan da. "batak bestea ekarri du. Ibilaldia egin eta gero afaria egiten dugunez, han planeatzen dira gutxi gorabehera hurrengo urtekoak".

Joxan Salsamendik aitortu digu "beti" ibili izan direla mendian, urtean zehar honelako beste bi martxa luze egiten dituztela, "Fortuna mendizale elkarteak antolatutakoak" eta

inguruko parajeak ondo ezagutzen dituela: "ezkondu ginenetik, umeekin joan izan gara igandero, gu, beste lagun batzuekin. Lehen Batasunan ibili ginen eta orain Ostadarren gaude. Laguntza behar badute beti laguntza emateko prest".

Ostadarren ez dute normalean irteerarik antolatzen baina hontan, norbaitek interesik balu parte hartzeko aukera zabaldu dute. Joateko asmoa dutenek, maiatzak 10 astelehena baino lehen eman beharko dute izena Ostadar elkarteak Geltoki kalean, 25 zenbakian duen bulegoan. Arratsaldeko 16:00tik 20:00ra dago zabalik astelehenetik ostiralera.

Joxan Salsamendik esan digunez urtero egiten ditu hiruzpalau irteera Piriniotara, eta Palencian, Carrionen,... ere

ibiltzen da. Alpeetara ez da sekula joan, baina dioenez "gida liburuxka badaukagu eta denbora hartu behar joateko".

Arratetik etortzeko 13 bat ordu beharko dituzte. Bideko otordua Aizarnan egingo dute eta afaria Lasarte-Orian: "Lasarte-Oria elkartearen egin genituen bi, iaz Orian Buruntzazpin eta aurten Intzan".

Denetarik izaten da urtero martxa honetan, "batzuk prestatu gabe ateratzen dira, gero ez dute erretiratu nahi eta larri ibiltzen dira; beste batzuk lasterka egiten dute gero lanera joan behar direlako. Ondo ibiltzen gara. Kontua ondo pasatzea da. Etorri, afaldu eta tabernak itxi arte segi, berriro, nora joan nahi duten ikusi eta guk bilatuko ditugu bideak" esan digu Joxan Salsamendik. •

GOIEGI
Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) · T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

Maiatzatik Irailera gauero* zabalik
Asteko menu berezia ikusteko:
www.goiegi.com

* igandea eta astelehena ezik